

Ikasturte berrian ere, Euskal Eskola Publikoaren alde!!!

Kaixo, lankideok:

Ikasturte berrian murgiltzearekin batera, arazo eta erronka zaharrez jabetzea guztiok berehala egin dugun ariketa izan da. Ikastetxeen antolaketan, eguneroko lanean (edo lan ezan, askoren kasuan), baldintzen okertzean, lan zama handitzean ... sumatu dugu berriro ere nola kaskartzen ari diren gure lan baldintzak, gure hezkuntzaren kalitatea, nola okertzen ari den, sarritan, gure ikastetxeetako giroa.

Ez gara panorama beltzak saldu zale, ez eta egoera dena baino okerrago azaltzearen aldekoak, baina ez dugu begirik itxi nahi gure ikastetxeetan gertatzen ari diren horien guztien aurrean. Badakigu, zuek bezalaxe, ez dela erraza hori guztiari aurre egitea, askotan kosta egiten zaigula erantzunetan asmatzea edo ekimen bateratuak behar bezala bideratzea. Hala ere, erantzun oso indartsuak, sarritan eredugarriak, eman ditugu hezkuntza komunitateak eta bertako langileok horrela planteatu zaigunean.



Horiek guztiak ikusita ere, aurreko urteetan landutako bideek nondik jo behar dugun argi erakusten digutelakoan gaude. Gai eta arazo berdinei aurre egin behar diegu, hiru ardatzen inguruan koka daitezkeenak: **murrizketak, LOMCE eta Euskal Eskola Publikoaren aldarria.**

Tokian tokiko dinamika sustatzea eta indartzea oinarrizko abiapuntua delakoan gaude. Ikastetxearen eremuan hasi behar da gure hausnarketa eta antolaketa, eskola komunitatearekin partekatzea, protesta eta salaketa ekimenak gauzatzea, herri edo eskualde mailan koordinatzea ... Lan horretan ikastetxeak, eragile ezberdinak eta sindikatuak gabilta, besteak beste. Gure ustez, hau guztia erabat bateragarria da maila orokorragoan bultzatu beharko ditugun ekimen eta borrokekin, berdin gure sektorean zein maila orokorrean.

STEE-EILASen aldetik garbi dugu denon lana beharrezkoa dela, eta ahalik eta modu bateratuenean aritu behar dugula. Horretan guztian gure konpromisoa berrestez gain, gure lana eta baliabideak ere eskaini nahi dizkizuegu. Iaz hasitako bidean, zenbait euskarri ditugu zuen ikastetxeetako ekimenetan erabiltzeko: kamiseta beltzak, tirak, txapak ... Baina prest gaituzue informazioa

partekatzeko, eztabaidatzeko edo elkarrekin aritzeko. Kezkak, proposamenak eta iritziak partekatzeko prest gaituzue.

Urriaren 12an dugu jarrita lehen zita, Bilbon, arratsaldeko 5:30ean, LOMCEren aurkako manifestaziorako deialdia hain zuzen ere.

Dakizuenez, Hezkuntza Departamentuak irakasleen lan baldintzak okertu dituen hainbat neurri aplikatu ditu: ordu lektiboen igoerak ekarri duen plantillen murrizketa, interinoren kontratuen baldintzen kaskartzea (kontratu partzial gehiago, urte osorako bakanteak ordezkapenak bihurtu, Gabonetako eta Aste Santuko oporrak ez ordaindu...), ordezkapenen atzerapena, soldataren murrizketa, Lehen Hezkuntzan 55 urte gorakoentzako ordu murrizketen amaiera, erretiroa eskatzeko baldintzen gogortzea... Horiek guztiek bertan behera uztea exijitzen jarraituko dugu.

Eskola inklusiboa eta laikoa, konpetentzietan eta gaitasunetan oinarritutakoa, gizarte kohesioaren aldekoa eta bereizkerien aurkako hezkuntzaren alde egoteak tinko jarraitzea eskatzen digu.

Gure ustetan, eskola publikoak bermatzen ditu hobekien asmo horiek guztiak. Aldaketa sakonak behar dituela ere garbi dugu, baina gure herriak behar duen hezkuntza sistemaren ardatz nagusia bera dela baieztatzeko ez dugu inolako zalantzarik. Horrek areagotzen du gure amorrua gainontzeko zerbitzu publikoekin batera nolako astindu ikaragarriak jasotzen dituen ikustean.

Bidea luzea izango bada ere, arrazoi ugari dugu, asmo eta nahiak ere, berdintasunaren alde, bazterkeriaren aurka, justizia soziala eta gizarte kohesioaren alde, aberatsen eta boteretsuen aurka, eta gizartearen gehiengoarekin batera aritzeko.

Zuek ere bide berean izango zaituztegu ez dugu zalantzarik. Animo eta aurrera!

MURRIZKETARik EZ!!!
LOMCEri EZ!!!
KALITATEZKO HEZKUNTZAREN ALDE!!!

